

S i n d i k a i H e z i k e t a S a k o n d u z

U. O.
orokorra


2.

Europar integrazioa

LAB
Hezkuntza

Zbkia
54K 000 37
DOKUMENTAZIO
ZENTROA

ZAKEN




2.

**Europar
integrazioa.**

2. Europar integrazioa.

Idazlea: **Santiago Ramirez** (Zientzia Politikoetan Lizentziatua).

Argitaratzailea: **Ipar Hegoa Fundazioa**



2.

orokorra

Europar integrazioa.

Estatu modernoen sorrera eta bilakaera. Lehengo ideia europazaleak.

Europaren erakitza prozesuaren aurrekariak.

- Lehenengo mundu gerra.
- Bigarren mundu gerra.
- Marshall plana.
- Aduanetako arantzel eta merkataritzari buruzko itun orokorra (G.A.T.T.).
- Ipar Atlantikoko antolakundea (OTAN/NATO).
- Ikatz Altzairuen Ekonomia Elkartea (IAEE).
- Mendebaldeko Europaren Batasuna (MEB).

Europar Elkartearen eraketatik Maastrich-eko Tratatua.

- EEEren handipenak.
- Europako Agiri Bakarria.
- Lomeko Hitzarmena.
- Maastrich-eko Tratatua.
- Maastrich-eko Tratuaren ezaugarriak*
- Europaren kohesio handiago baterantza.

Europako Elkarteoko sistema politikoa

- Europako erakundeak
 - Ministroen kontseilua.*
 - Europaren kontseilua.*
 - Europako parlamentua.*
 - Europako elkarreetako batzordea.*
 - Europako elkarreetako justizi auzitegia.*
 - Konitu auzitegia*
 - Ekonomia eta gizarte batzordea*
- Politika bateratuak.
 - Nekazaritzaren Politika bateratua (NPB).*
 - Elkarreko Industria Politika (EIP).*
 - Kanpo eta Segurtasun Politika Bateratua (KSPB)*
 - Beste politika bateratu batzuk.*

Alemaniarren papera Europaren eraikuntzan.


- Alemania eta geopolitika.
- Alemaniarren jarrera EEEren handipenean.
- Alemaniarren birbateratzea eta EEE.

Europar Batasuna gaurko nazioarteko testuinguruan.

Euskal Herria Europar integrazioaren aurrean.

LABURDUREN ESANAHIA

2. Europar integrazioa.



Estatu Modernoen

sorrera eta bilakaera.

Lehengo ideia europazaleak

Gaurregun

Europar Batasuna osatzen duten Estatuetakoa batzuek Goi Erdi aroan eta Aro Modernoaren hasieran dute beren sorrera. Esate baterako, Espainiar Estatuak, Frantziarrak eta Britainiarrak.

Garai hartan faktore ekonomiko, politiko eta sozial mordo baten jarduketaren ondorioz botere politikoaren zentralizazio-prozesu bat eman zen monarkia feudaletatik abiatuta, gerora agintekeriazko monarkiak edo monarkia errenazentistak deituko zitzaizkion bide eman ziena. Hau da, Estatu zentralizatu modernoak sortu zen. Eta hori, produktio-era kapitalistaren hasierarekin batera etorri zen.

Espainian bultzada erdirazlea Errege Katolikoekin eman zen XV. mendearan amaieran, penintsulako erresuma erberdinekin gerra-mordo bat egin ondoren. Frantzian, Kapetoen eta Valois dinastiako erregeekin burutu zen Ehun Urteetako Gerraren ostean eta Britainia Handian Tudorren

dinastiarekin Bi Arrosen Gerraren ostean.

Estatu modernoek jada, lurralde finkoa dute, muga zehatzekin, epai, zerga eta administrazio-aparatuekin eta halaber armada iraunkorra ere. Izan ere, gerratik eratorririko premiek lagundu zuten neurri handi batean bultzada erdirazle hori burutzen.

Lehenengo Estatu moderno hauetatik abiatuta, boterearen baterakuntza gehituz joan zen XVI. mendetik XVIII. mendera doan epealdian monarkia absolutuak deituak eratu arte.

Monarkia hauek, errealitatean, oreka erlatiboa zuen egoera bati erantzun zioten, zeren garai hartan

2. Europar integrazioa.

aitzinerudikatu zuten pentsalariak, pittin bat ameslariak egia da, baina ez hala ere argitasunik gabeak.

Hasieran batasun hori zerbait idealizaturik asmatu zen, garaiko baldintza sozio-ekonomikoak kontuan ukan gabe. Esan dugun moduan, Erdi Aroko zati handi batean eta Aro Modernoaren hasieran Europa hitza Kristiandadearekin egiten zen bat. Horregatik, europar batasunaren lehenengo proiektuak "printze kristauen batasunari" buruzkoak izan ziren.

Idea honexen inguruan biraka ibili ziren Pierre Dubois (1305-1307), Eneras Silvio Piccolomini (1454) edo Antoine Marini-ren (1461) proiektuak. Gero, XVII. mendean Frantziako Enrike IV erregearen ministroa zen Sully-ko dukeak, kontinentea Frantziaren nagusikoaren pean berregituratzeko plana azaldu zuen.

Honek erakunde bateratu mor-do bat sortzea proposatzen zuen eta, halaber, batasun horretako kide guztien laguntza zeukaten armada eta flota bat ere.

XVIII. mendean Leinizt filosofo

alemaniarrek ere planteatu zuen Europako Estatuaren batasunaren premia, lehen elementu-multzo batek "monadek" eraturiko Unibertsoa begien aurrean zeukan sistema filosofiko baten analogia eginik.

XVIII. mende berean, Saint Pierre-ko abatak, Charles Irenée Castel-ek eta Juan Jacobo Rousseau-ek ere proposatu zuten senatu europar, botere legegile eta armada bateratuak sortzea. Emmanuel Kant filosofoak, bere aldetik, Europako Estatuaren federakunde bat sortzea proposatu zuen eta, geroago, XIX. mendean Proudhom eta Saint Simon sozialista utopikoek Europar Konfederakundea proposatuko zuten. Eta azkenez, Victor Hugo idazleak, XIX. mendean honek ere, Europako Estatu Batuak sortzea proposatu zuen.

Hala ere, asmo on hauek paper hutsean geratu ziren guztiak. Baina, Europako industriari eta finantzari-talde bat, alemaniarrek eta frantziarrak bereziki, ekonomia-garapen kapitalistak aginduta, premia hau sentitzen hasi zirenean, proiektu hau orduan bai hasi zela benetan errealtate-antzak hartzen.

Europaren eraikuntza prozesuaren
aurrekariak

Napoleonen gerren garaian XIX. mendeko lehenengo bi hamarkadetan, Inperioaren hedapenean babestuta eta Frantziaren nagusigoaren pean eman zen **integrazio kapitalista kontinentalaren** lehenengo saioa.



2. Europar integrazioa.

Aduanetako Arantzeleta Merkataritzari buruzko itun Orokorra (G.A.T.T.)

Urte berean hasi zen indarrean Aduanetako Arantzel eta Merkataritzari buruzko Itun Orokorra ere; hau sortzeko erabakia Merkataritzako Nazioarteko Konferentzia prestatzeko Batzordearen bileran hartu zen, ONUren Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren babespean, Geneven 1947an ospatu zen bere bigarren batzarraldian.

GATTa tratatu aldeanitzaren, nazioarteko merkataritza liberalizatzeraren eta gerraosteko ekonomia-zuzperraldia errazteraren destinatutzarako baitzegoen.

Arantzelak pixkanaka-pixkanaka gutxitzea ere nahi zuenez, errealitatean GATTak industri potentzia handiei egiten zien mesede, batez ere Estatu Batuei.

Estatu Batuek liskarraren amaieratik ondozkatu zuten Britainia

Handia potentzia ekonomiko eta militar gisa, leku hori Britainiak bete baitzuen XVIII. mendearen zati batean eta XIX. mende osoan.

1949ko maiatzean Europako Kontseilua sortu zen Londresko Tratatuaren bidez. Hau, gobernuarteko erakunde bat zen, herrialde mailakoa eta aldarrikaturiko bere helburuak hurrengo hauek izan ziren: "Justizian eta nazioarteko lankidetzan oinarritutako bakea finkatzea ...". Bere kide fundatzaileak Belgika, Frantzia, Britainia Handia, Luxemburg, Holanda (1948ko Bruselako Tratatuaren sinatzaileak) gehi Danimarka, Irlanda, Italia, Norvegia eta Suedia izan ziren. Guztiek zituzten erregimen demokratiko-parlamentariak.

Ipar Atlantikoko Antolakunde (OTAN/NATO/IATE)

Urte berean Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundea (OTAN/IATE) sortu zen Washinton-en, SESB eta gainerako herri sozialistak planeta osoan zehar inguratzen saiatzeko Estatu Batuek asmatu

zuten itun militar mordoaren lehenengoa.

OTAN/IATEn Europako hainbat herrik hartu zuen parte, Turkia, 1952an sartu zena eta Alemania, 1954an egin zena, izan ezik. Haez gain OTAN/IATEn Ozeanoz handiko bi kideek ere, Estatu Batuek eta Kanadak alegia, hartu zuten parte.

Bestalde Ekialdeko herriek uko egin zioten, SESB, faszismoaren kontrako garaipen aliatuaren partaide izan zen potentzia ekonomiko-militarra buru zutela, Marshall Plana euren eremuan aplikatzeari eta Mendebaldeko okupazio-eremuak Alemanian birbateratu eta eremu haietan ekonomia-agintaritza bat, errealitatean mendebaldeko aliatuen babespean zegoen benetako gobernu alemaniarra zena, ezartzearen kontra agertu ziren.

SESB-k Berlin blokeatu zuen eta blokeoa 1949ko maiatzera arte mantendu zuen. Urte honetan herri sozialistak elkartzen zituen Elkarren Laguntza Ekonomikorako Kontseilua (ELEK/CAME/CAEM) eratu zen Europako Ekialdean.

Ikatz Altzairuen Ekonomia Elkartea (I.A.E.E./C.E.C.A.)

Mendebaldeko Europaren ekonomia-integratzaileentzako lehenengo urratsa 1951n eman zen Ikatz Altzairuen Europako Elkartea (IAEE/CECA) sortu zenean.

1950eko maiatzaren 9an Jean Monnet, Frantziako Garapen Planaren Komisari Nagusia garai hartan zenak, iradokirik, Robert Schumann, Kanpo Arazoetako Frantziar ministroak, bere izena daraman eta europar integratzaileen oinarri eta hasieratzat hartu ohi den Adierazpen ospetsua formulatu zuen.

Schumann-ek proposatu zuen ikatz eta altzairuaren produkzio franko-alemaniar osoa Agintaritza Goren bateratu baten, Europako beste herri batzuk eskuhar zezaten irekirik egongo zenaren, zuzendaritzaren pean jartzea.

Schumann-en ustez, honek garapen ekonomikoa bultzatzeko oinarriak jarriko zituen eta, gero,

2. Europar integrazioa.

Europako Federakundea eratze-koak. Proposamen hau berehala onartu zuten Europako beste herri batzuek, hala nola Alemaniak, Italiak eta BENELUXekoek.

Britainia Handia, bere aldetik, subiranotasunaren edozein lagapenaz mesfidati, "koordinaketa" adierazgaitz eta zehazgabe bati bere laguntza emango ziola azaltzera mugatu zen.

Negoiazioetan hainbat hilabete iragan ondoren Pariseko Tratatua sinatzea lortu zen (1951ko api-

rilaren 18a); IAEE/CECA hantxe eratu zen.

Pixka bat lehenago Koreako Gerra hasi zen (1950-1953). Gatazka honen eztrandak, oso urrun gertatu arren, Alemaniako arazoa berriz ere gori-gori jartzeko besteko indarra izan zuen. Estatu Batuek berehala proposatu zuten Alemaniak parte hartu behar zuela Mendebaldeko Europaren defentsan.

Honek **alemaniar berrarmatzearen** gaia planteatzea ze-



karren bere baitan; eta horrek kezka ez bakarrik sortzen zuen SESB eta bere aliatuetan, mendebaldeko herrietan eurretan ere baino, Frantzian bereziki.

1950eko abuztuaren 11n Europako Kontseiluaren Kontsulta Batzarrak, iparramerikarrek eta OTAN/IATEko Kontseiluak defendatzen zuten planketarekin, hau da: europarrek, eurek bakarrik eta Alemaniaren eskuharmen osoarekin, buruturiko defentsaprograma lantzeko gomendatzen zuenarekin, bat zetorren ebazpena hartu zuen.

Hortik abiatuta, Pleven Plana landu zen, 1952ko maiatzean Defentsarako Europar Elkartearen (DEE/CED) eraketarako Pariseko Tratatuan gauzatuko zena.

Geroxeago, Kanpo Arazoetako ministroek, Luxemburgen batzartuta, Europar Mugimenduaren, Europako Kontseiluaren Kontsulta Batzarraren eta Frantziako Batzar Nazionalaren ekimen-mordo bat jaso ondoren, Europar Elkarte

Politiko bat, IAEE/CECAn eta DEE/CEDn oinarritua, sortzeko estatutuak lantzeko ardura ukanen zuen Batzorde bat eratzea proposatu zuten.

Hala ere, DEE/CEDren proiektuak kontrakotasun handia ukan zuen herri sinatzaile guztien artean. Baina, Frantziako Batzar Nazionalaren jarrera izan zen, DEE/CED eratzen zuen Tratatuaren sinaduraren baiespenari buruzko bozketan "sine die" luzatuta, praktikan jartzea eragotzi zuena.

Proiektu honen porrotarekin, hiru arazo garrantzitsu geratu ziren konpondu gabe:

- a) Alemaniaren berrarmatzea,
- b) Sarre-ren arazoa eta
- c) Europar integrazioaren berrabiadura.

Mendebaldeko Europaren Batasuna (MEB/UEO)

Alemania, europar armadaren markoan integratu ez zenez, bere kontura berrarmatuko zen.

2. Europar integrazioa.

1954ko urrian sinatu ziren Mendebaldeko Europako Batasuna (MEB/UEO) sortu zuten Pariseko itunak.

Estatu fundatzaileak, hurrengo hauek izan ziren: 1948ko Bruselako Tratatua bost sinatzaileak (Frantzia eta Britainia Handia, 1947tik Dunquerqueko Tratuak lotetsirik zituenak, eta BENELUXeko hirurak) gehi AEF eta Italia. Une berean, Estatu Batuen eta Kanadaren laguntzaz Alemania OTAN/IATEn onartu zen.

SESB eta bere aliatuen erantzuna, beste aliantza militar bat, Varsoviako ituna, eratzea izan zen (1955).

Sarre-ren arazoa, herrialde honi "Europar Estatutua" eman eta gero erreferenduma (1995eko urriaren 23an) egiteko aukera uzten zion hitzarmen frantziar/alemaniarren sinaduraren bidez konpondu zen; erreferendumaren emaitza, Frantziaren kontrakoa izan zenez, lurraldea Alemaniara berriz 1957an pasatzea ahalbideratu zuen.

Konpondu gabe geratu zen azkenengo arazoa, IAEE/CECAREN sorrerarekin hasi zen europar integrazioaren prozesua bultzatzearena alegia, BENELUXeko herrien ekimenez berrartu zen, IAEE/CECAko gainerako kideei memorandum bat bidali baitzien hasitako prozesuan sakontzea proposatzen.

1955eko ekainean IAEE/CECAko Estatu kideetako Kanpo Arazoetako Ministroen goi-gailurreko batzar bat ospatu zen Mesinan (Sizilia) eta han jakinarazi zuten euren helburua politika ekonomikoaren arloan Europako Merkatu Batua sortzea zela eta, halaber, energia nuklearraren garapen baketsua bermatzeko ardura zuen antolamendu bateratu bat eratzea ere.

Goi-gailurreko batzar honetan oinarrituta, gobernuen ordezkarien batzorde bat eratu zen adituen laguntzaz, lanak koordinatzeko ardura hartu zuena. Horrexetara jaiotzen "Spaak Batzordea".

Europar Elkartearen Eraketatik

Nazioarteko
egoerak
berak ere
ekonomia
eta politika-

Maastrich-eko Tratatura

integraziorako formulak bilatzera bultzatzen zituen
Mendebaldeko Europako herri kapitalistak.



2. Europar integrazioa.

Urte batzuk lehenago Britainia Handiak India, bere kolonia nagusia, galdu zuen. Holandak, Indonesia, bere antzinako kolonia, utzi beharra izan zuen. Frantziak, bere aldetik, Indotxinan porrotaldia jasan zuen eta Algerian hasirik zegoen jada Nazio Askatasunaren aldeko Gerra.

Anglo-frantziar eskuharmenaren porrota gertatu zen jadanik Suez kanalaren inguruan ere, Europako potentziak nazioarteko eremuan boterea gero eta gehiago galtzen ari zirela egiaztatzen zuten Estatu Batuen arduragabetasunaren aurrean.

"Spaak Batzordeak" 1956an aurkeztu zuen bere informea, Energia Atomikoaren Europar Elkartea (EAEE/CEEA), Euratom izenaz ezagunagoa dena eta Europako Ekonomi Elkartea (EEE/CEE) eratu zituzten Tratatuaren negoziatorako oinarri izango zena. 1957ko martxoan, IAEE/CECAko Estatu kideek bi Tratatuak sinatu zituzten Erroman eta 1958ko urtarilaren leian indarrean hasi ziren.

IAEE/CECAren eraketaren kasuan gertatu zen moduan, orain ere Britainia Handiko gobernuak mesfi-

dantza handiak erakutsi zituen Europako Elkartearen partaidē izango ziren Estatuei subiranotasun-galera ekar diezaikeen proiektu horren kontra.

Tratatuak indarrean hasi aurretik, Europako ekonomia-batasunari buruzko proiektu baten aldeko kanpaina bat hasi zuen Europan. Baina britainiar gobernuaren ideia, subiranotasun nazionaleri uko egitera Estatu kideak behartuko ez zituen **truke librearen eremu** bat ezartzean zetzan.

Eremu honetan, herri kideek, euren arterako, aduana-kontrolak ezabatuko zituzten; baina, hala ere, hirugarren herriekin bakoitzak era autonomoan eraman zitzakeen bere negoziazio politiko-ekonomikoak.

Britainiar proiektuaren alde Danimarka, Norvegia, Islandia, Austria, Portugal eta Suitza agertu ziren. IAEE/CECAko sei kideak, oster, kontra agertu ziren, ordurako fermuki erabakirik zutelako Europako Ekonomi Elkartea sortzea.

Ekimen honen porrotaren aurrean eta EEE/CEE eraturik zegoela, Britainia Handia truke librearen

eremu zabal bat, hemengo kideak eta OECE/KEEEko gainerako kideak bilduko zituena, sortzen saiatu zen. Baina proiektu berri honek ere turrut egin zuen 1958an, Britainia Handiaren eta Frantziaren arteko diferentzien ondorioz.

Hau ikusita, 1959an Europako Truke Librearen Elkartea (ETLE/AELC) EFTA bezala ere ezagutua, sortu zen. Truke libreko eremu honen bertsio berri murriztuaren kide, hurrengo hauek izan ziren: Britainia Handia, Norvegia, Suedia, Danimarka, Austria, Portugal, Islandia eta Suitza eta baita Finlandia ere, baina hau Estatu Elkartu bezala.

Britainiar gobernua bi urte geroago, nazioarteko ekonomia-egoeraren bilakaeraz jabetu zenean, konturatu zen Commonwealth-en baitan paper nagusia jokatzeko Britainia Handiari ez ziola behar zen beste bermatzen deskolonizazio-mugimendua bultzatzeagatik arlo politikoan nabariri ahuldurik gertatu zen bere eragipena mantentzeko gaitasuna.

Konturatu zen halaber, EFTAk, ekonomia-izaerako helburuak soilik ez zeuzkan erakunde hark ere, ez

ziola bermatzen aipatu eragipen hori mantentzea.

EEE/CEE sortu berriak, oster, ekonomia-motako helburuak eta orientazio politiko bat konbinatzen zituen, nahiz eta hau epe luzerako kontua izan. Honek guztiak eraman zuen Erresuma Batua 1961eko abuztuan Elkartearen onartzeko eskabidea egitera.

Baina barneko kontraesanak Europar Elkarteetan ere agertu ziren. Honela Frantzia elkartearteko arantzel-tarifen murrizketa eta kanpoko tarifa bateratuaren igoera bateratsu egitearen alde agertzen zen. BENELUXeko herriak eta Alemania, oster, truke librearen aldekoak ziren eta, hortaz, jarrera honen kontra agertzen ziren.

Euratomen ere tirandurak sortu ziren. Erakunde hau berehala hasi zen erradio-isotopoak zientzia eta industriari aplikatu ahal izateko ikerketak burutzen eta halaber fusio-energiari buruzko esperimenduak egiten ere.

Arlo hauetan lankidetzak hitzarmen batzuk egin ziren energia

2. Europar integrazioa.

nuklearraren Batzorde iparramerikarraren eta Europako herrien artean. Baina Frantziak, bere teknologia nuklear propioa garatzen ari zenez, ahal zuen guztia egin zuen Euratomek bere teknologia hori, kostuari begiratu gabe, ofizialki onar zezan, zeren iparramerikarra merkeagoa baitzen.

Era berean, Frantzia bere indar militar nuklear propioa garatzen ere ari zen; hau errezeloz ikusten zuten hala Estatu Batuek nola Elkarteko gainerako herriek, ez zutelako nahi Euratom Frantziako politika militarren zerbitzuan zegoen tresna batean bihurtu zedin.

1963ko urtarrilaren 14an De Gaulle generalak, prentsaurreko batean, bere gobernuak Britainia Handia EEE/CEEen sartzeari betoa jartzeko asmoa zuela iragarri zuen. Erresuma Batua Elkartean sartzea ez onartzeko Frantziak jartzen zuen arrazoi nagusia, herri hark Estatu Batuekin zeukan harreman estua zen, Frantziarrentzat hori Europaren eraikuntza-prozesua dinamitzeko iparramerikarrek zeukaten "Troiako zaldi" moduko bat bezala agertzen baitzen.

1963ko uztailaren 20an Yaunde, Kameruneko hiriburuan hitzarmen bat sinatu zen Afrikako Estatu eta Malgacheren Elkarteko (EAMA) 18 Estaturen eta EEE/CEEren artean. Konbentzio honen bidez EEE/CEE eta Afrikako antzinako kolonia frantziar, belgikar eta italiar batzuk harremanetan hasi ziren.

Errealitatean Europako herri kapitalisten eta antzinako jabetza kolonial batzuen artean gauzatutako neokolonialismo-itxurako harreman-sistema baten berrezarketa bat zen, bere bidez lehenengoek euren ekonomiak garatzeko behar zituzten lehen gaiez merke hornitzea ziurtatzen baitzuten.

1967ko uztailan Europar Elkar-teetako exekutiboan bat-egitea gauzatu zen. Ordura arte, hiru Elkar-teek exekutibo ezberdinak (IAEE/CECAkoari Agintari Gorena deitzen zitzaion) eta Ministro Kontseilu independenteak eduki zituzten. Europar Parlamentua eta Justizi Auzitegia, oster, hiru Elkar-teentzat bateratuak ziren.

1967tik aurrera Batzorde bakar bat eta Kontseilu bakar bat izan ziren;

Batzorde eta Kontseilu horiexek izan ziren, bada, ordura arte erakunde zaharrei gomendaturiko eskurantzak egikaritzeko ardura hartu zutenak. Elkarteko hiru Tratatueta hitzarturiko baldintza berdinetan eta arau berdinekin.

E.E.E./C.E.E.ren handipenak

Erakundeen bat-egite hau, Pariseko Tratatu (IAEE/CECA sortu zuena) eta Erromako Tratatuak (EEE/CEE eta Euratom sortu zituztenak) ordezkaturiko zituen Tratatu bakar batek gobernaturik egongo litzatekeen Europar Elkarte bakar baten erakuntzarantzako lehen etapa zela jakinarazi zen. Baina asmo hauek ez ziren gauzatu beranduagora arte.

1968an Aduana-batasuna jarri zen indarrean. Hurrengo urtean Yaundeko bigarren Hitzarmena sinatu zen. 1969an De Gaulle Presidenteak kargua utzi zuen eta ondorioz EEE/CEEko atea ireki zitzaion Britainia Handiari.

Europako Elkartearen lehenengo handipena 1972an gertatu zen, Erre-

suma Batuak, Irlandak eta Dani-markak atxekimendu-tratatuak sinatu zituztenean. Norvegia, ostera, ez zen sartu, atxekimendu-erreferenduma kontrakoa gertatu zelako.

Handipen hau eta krisi ekonomikoa, sistema kapitalista, oro har, bi hamarkada baino gehiagoan astindu eta lanaren nazioarteko banaketan



2. Europar integrazioa.

eta metaketa-ereduan aldaketa nabarmenak, ekonomiaren globalizazioa lortzerainokoak, ekarriko zituen alegia, batera gertatu ziren.

1981ean Grezia egin zen EEE/CEEko hamargarren Estatu kide. Bi urte beranduago European Round Table of Industrialists (ERT), Europako nazioz gairako enpresa garrantzitsuenak (Fiat, Shell, Daimler Benz, Nestlé, e.a.) biltzen dituen superugazaberia, sortu zen eta, ordutik aurrera, presio-talde indartsu bezala jokotuta, honexek markatuko ditu Europaren integrazio-prozesuan jarraitu beharreko jokaildoak.

1984ko ekainean, Fontainebleauko Europar Kontseiluak Elkar-tearen barruan zirkulatzen zutenei aduana eta polizia-tramiteak kentzeko printzipioa onartu zuen. Norabide horretan eman zen lehenengo urratsa, Alemania eta Frantziaren artean urte berean sinatu zen Sarrebruckeko hitzarmena da.

Urtebete beluago, 1985eko uztailaren 14an hain zuzen, Frantziak, Alemaniak eta BENELUXeko herriek Schengen-eko hitzarmena sinatu

zuten; hitzarmen hartan erabaki zen muga komunetako kontrolak kenduz eta libre zirkulazioko araudi bat ezarri arian-arian joan behar zela lagun guztientzat, Estatu sinatzaileko, Elkarteko gainerako Estatu kideetako zein hirugarren herrietako hiritar izan. Schengen-eko hitzarmena Italiak 1990eko azaroaren 27an sinatu zuen.

Baina Schengen-eko hitzarmenak kontuan hartzen zuen halaber polizia-kontrolak gogortu behar zirela Elkartetik kanpoko mugetan, Hirugarren Munduko herrietatik, Magreb-etik bereziki, zetozen milaka eta milaka migrarien inbasiotik europar "gotorlekua" zaintzeko. Eta, era berean, arau bateratu mordo bat ezartzen zuen "terrorismo", narkotrafiko eta hilketa antolatuaen kontra borrokatzeko.

Europar Elkar-tearen handipen-prozesuarekin jarraituz, Espainiak eta Portugalek 1985ean sinatu zituzten Atxekimendu Tratatuak eta 1986an inkorporatu ziren. Schengen-eko hitzarmenak 1991ko azaroaren 18an sinatu zituzten Estatu batak eta bestek.

Europako Agiri Bakarra

Urte berdinean sinatu zen Europako Agiri Bakarra ere (EAB/AUE) eta hurrengo urtean indarrean hasi. EAB/AUE berrikuntza bat izan zen Europar Elkarteak eratzen zituzten Tratatuakiko.

EAB/AUEk 1993rako jartzen zuen mugarik gabeko Barne Merkatuaren helburua eta ondorioz horrekin zerikusia zuen gutxian erabakiak hartzeko prozedurak bizkortu zituen. Horrela, EAB/AUEren sinaduratik aurrera ez zen eskatuko ahobatekotasuna arazo jakin batzuetan, gehiengo kualifikatua baino.

EAB/AUEk emendakin mordo bat egin zien hasierako Tratatuari, hurrengo gai hauekin esate baterako: ekonomia eta gizarte-koherentsia, ingurugiroa, erakundeen arteko lankidetzak eta lankidetzak politikoa.

Aurreko negoziazio-prozesuan zehar eta EAB/AUEren prestaketari begira, Frantziak eta Alemaniak Europar Batasun bat sortzea proposatu zuten. Baina oraindik ez

zuten urrats hori emango eta EAB/AUE "garaia zenean" sortzeko konpromezu politikoa hartzera mugatu ziren.

Lomeko Hitzarmena

1989an Europar Elkarteak, bere ekonomia-eragipena antzinako kolonietan finkatzeko politikari jarrai, Lomeko IV. Konbentzioko negoziazioak bukatu zituen Afrikako 88 Estatu, Karibe eta Bareko eskualdearekin (AKB/ACP).

Horrela lehen gai merkeztan hornitzea ziurtatzen zen eta herri haiei bermatzen zitzaizkien hamabien merkatura sarbide "librea" ukaitea eta era berean lankidetzak tekniko eta industrialaren markoa ere ezartzen zen.

Azken honekin Elkarteko herri industrializatuenetako finantza-taldeak, erdialdeko herrietan jadanik errentagarri ez zirenen enpresa edo produkzio-lerro batzuk, inguraldera eramanez gero berriro errentagarri bihurtu zitezkeenak, deslektatzeko ahalbidea ere ziurtatzen zuten, (hemen zerga-abantailak, eskulan merkea, e.a. izango baitzuten).

2. Europar integrazioa.

Maastrich-eko Tratatua

1992ko otsailaren 7an Maastrich-eko (Holanda) Tratatua, **Europar Batasunaren Tratatua** (EBI/TUE) alegia, sinatu zen. Honen aurretik Europako Erdialdeko eta Ekialdeko herrietan garrantzi handiko aldaketa-mordo bat gertatu zen.

Maastrich-eko Tratatuauren aurrekarien artean aipatu behar dira Perestroikak hasiriko prozesua, "sozialismo Errealaren" lur jotzea ekarriko zuen hura, Berlingo harresiaren erorketa eta Alemaniaren birbatera-

tzea, (1990eko urria); Varsoviako Itunaren desegitea (1991ko otsaila); SESBren zatiketa eta Errusiak, Bielorrusiak eta Ukrainiak ondoren eraturiko Estatu Independeeentzen Elkartearen (EIE/CEI) eraketa.

Finantza-talde nagusien eta naziozgaindiko enpresen interesetarako, Europaren integrazio-prozesuan eman den urratsik garrantzitsuena, Europar Elkarateak eratu zituzten Erromako Tratatua 1957an sinatu zirenetik, EBI/TUE izan da.

Maastrich-eko Tratatuauren ezaugarriak

Maastrich-eko Tratatua hiru zutoinetan oinarritu zuen Batasuna: lehenengo zutoina, elkarteko politika da (nekazaritza, garraioa, ingurugiroa, energia eta ikerketa eta garapena); bigarren zutoina, kanpo eta segurtasun politika bateratua; hirugarren zutoina, justizi eta barne arazoetakoak.

Handi-handika, Maastrich-eko Tratatua sartu dituen berrikuntzak, hurrengo hauek dira:

1.- Ekonomi eta Moneta Batasuna (EMB/UEM) burutzeko plan zehatz bat ezartzen du, moneta

Europako Elkaratearen Hitzarmena.

- ▷ Kanpo-politika eta Segurtasun Erkiderako politika.
- ▷ Europako Elkartea.
- ▷ Justizia eta Barne-arazoak.

Tranzioia Ekonomi eta moneta batasuner

▷ 1993ko urtarrilaren 1ean

Maastrich-eko ituna indarrean sartzea


Merkatu bakarra burutzapena.

▷ 1994ko urtarrilaren 1ean

ECUren osaketa bere horretan mantentzea

Bateratasun-programa. IMEren sorrera.

▷ 1996ko abenduaren 31ean



▷ 1998ko uztailaren 1ean.



▷ 1999ko urtarrilaren 1ean.

Bateratasun-irispideak biltzen dituzten estatuak, kopurua kontuan hartu gabe.

Moneta bakarra igarotzea SEBCa sortzea.

bakarra (euroa) eta Europar Banku Zentrala sortzea suposatzen duena. EMB/UEMren helburuak, bere alde-tik, konbergentzia-plan zorrotz bat burutzea eskatzen du; plan hau fase ezberdinetan banaturik dago eta fase horietako azkena 1999ko urtarrean hasia aurrirakusten da.

2.- Kohesio Fondo bat sortzen du, ekonomia atzeratuagoa duten Elkarteko herrietan konbergentzia-planak sortzen dituen ondorioak biguntzeko.

3.- Kanpo eta Segurtasun Politika Bateratua (KSPB/PESC) ezartzen du eta honekin zerikusian Europar Batasuneko politika militarra gauzatzeko tresna MEB/UEO izatea aurrirakusten, nahiz eta oraindik OTAN/IATerekiko lotura apurto ez.

4.- Politika Bateratuan Barne eta Justizia eremuak sartzen ditu; eta horrek esan nahi du Estatu kide guztiak lankide izango direla hurrengo arlo hauetan: inmigrazio eta asilopolitikan, polizi politikan (EUROPOL), narkotrafikoaren kontrako borrokan eta halaber justizi arloan ere (zibila eta penala).

5.- Europar hiritarraren figura sortzen du; hau, Elkarteko hiritarrek Europako Elkartean libreki zirkulatzeko eta egoitza-herrian ospatzen

2. Europar integrazioa.

diren Udal hauteskundeetan eta Europako Parlamenturakoetan parte hartzeko eskubidea izatean gauzatzen da.

6.- Politika berri mordo bat garatzen du hurrengo arlo hauetan: osasuna, kultura, kontsumitzaileen babesa, hezkuntza, industria, Europaz gaindiko komunikazio-sare handiak, garapenerako lankidetzak (KSPB/PESCrekin zerikusian), e.a.

7.- Zenbait aldakuntza egiten ditu Elkarteko erakundeen eskuduntza eta eginkizunetan.

Europaren kohesio handiago baterantza

1992ko maiatzean Europar Elkartea eta antzinako EFTAko herriak (Austria, Suitza, Suedia, Norvegia, Islandia, Finlandia eta Lichtenstein) hurrengo akordiora iritsi ziren, hots: 1993ko urtarriletik aurrera Merkatu Bakarreko (MB/MU) arauak nagusi izango ziren marko bat eratuko zutela non muga batzuekin baina merkantzia (nekazaritza-produktuak salbu) kapital, zerbitzu eta pertsonen zirkulazio librea egongo zen. Europako Espazio

Ekonomikoa (EEE), bada, eratu zen, hau da: Europako Elkartearen "bigarren zirkulu" antzeko bat edo eragipen-eremu zabal bat zena.

1995an EB/UEren handipen berri bat eman zen; oraingoan hiru Estatu berri sartu ziren: Austria, Finlandia eta Suedia; beraz, kide-kopurua hamabostera igon zen. Norvegian, atxekimendu-erreferenduma gobernuaren kontrakoa izan zen.

1996ko martxoan Gobernuarteko Batzarra (GAB/CIG'96) hasi zen Turinen, Maastrich-eko Tratatuan bertan hitzartuaren arabera EBI/TUE berrikusteko xedeaz. Batzar hau 1997an ere hilabete batzuetan luzatuko da.

GAB/CIG'96ren helburu nagusiak hurrengo hauek dira:

- a) EB/UEren "defizit" demokratikoa bideratzea.
- b) Elkarteko Erakundearen funtzionamendua hobetzea, batez ere bere handipenari begira.
- c) EB/UE, kanpo-ekintza eragin-korrako bat burutu ahal izateko baliabide egokiagoez hornitzea.

Europako Elkarteko

sistema politikoa

Europako Elkartearen ezaugarria hurrengo honetan datza, hots: nazioarteko beste antolakunde guztietatik ezberdina den erakunde-sistema bat izatean hain zuzen.

Paris eta Erromako Tratatuak sinatu zituzten Estatuak subiranotasun-lagapen batzuk egitea onartu zuten, aipatu Estatuetatik lokabe ziren Elkarteko organismoen mesedetan.

Europako erakundeak

Europako Elkartearen jarduera politikoa artikulatzen duten erakundeak, hurrengo hauek dira:

Ministroen Kontseilua

Kontseilua, besterik gabe, ere deitu ohi zaio. Hauxe da Elkarteko Erakunde guztietatik garrantzitsuena. Estatu kide guztietako ministroak biltzen dira, eguneko gai zerrendan agertzen den gaiaren arabera: Kanpo Arazoak, Nekazaritza, Industria,

Garraioak, Defentsa, Ingurugiroa, e.a.

Elkarteko Estatu bakoitzak urterdiko epealdietan txandaka egitaritzen du Presidentzia. Ministroen Kontseiluaren erabakiak, Estatu kideen Ordezkarri Iraunkorren Batzordeak (OIB/COREPER) presta-tzen ditu aurretik, Estatuetakoko ministerio ezberdinetako funtzionarioek osatzen dituzten komite batzuek eginkizunetan laguntzen diotelarik.

Ministroen Kontseiluak, gainera, kokalekua Bruselan duen Idazkari-tza Orokor bat du, erabakiak prestatu eta burutzen dituena.

Ministroen Kontseiluko erabakien gehiengoa, gehiengo kualifikatuz hartzen da, ahobatekotasuna funtsez-

dinak, gehienetan Bruselan biltzen dira. Bere Idazkaritza Orokorrak Luxemburgen du egoitza.


Parlamentuak, Ministroen Kontseiluarekin batera, legegintza-funtzioa egikaritzen du Elkarteko **zuzentzarau eta araudien** elaborazioan parte hartuta.

EAB/AUEk, Parlamentuan eta Ministroen Kontseiluan egiten diren bi irakurketen prozedura ezarri zuen; prozedura/lankidetzak honek indartu egin zituen, neurri batean, Parlamentuaren legegintza-eskuduntzat, batez ere barne-merkatuari buruzko gaietan.

Maastrich-eko Tratatuak erabakidetzaren prozedura ezarri zuen; bere bidez Europako Parla-mentuaren eta Ministroen Kontsei-luaren artean banatzen da boterea gai haue-tan adibidez: langileen zirkulazio librea, barne merkatua, ikerketa, ingurugiroa, Europaz kanpoko sare-ak, osasuna, kultura eta kontsumitzaileen defentsa.

Honen arabera, erakunde bataren eta bestearen arteko adiskidetzak porrot egiten duen kasuan, Parla-mentuak kideen gehiengo absolutoz (probabilitate nahiko txikia, egia esan) Ministroen Kontseiluak eraba-

EUROPAKO PARLAMENTUA



Iturria: Europako Elkarrearen Argitalpen Ofizialelarako eta Europako Parla-mentuaren Osaheta Politikorako Bulegoa, 1992-7-6ko Europako Parla-mentuko Idazkaritza Nagusiaren zerrendaren arabera.

2. Europar integrazioa.

kitako jarrera bateratua gaitzets dezake.

Parlamentuak Ministroen Kontseiluarekin erdibanatzen du aurrekontu-boterea ere, Europako Elkarteko aurrekontua (Batzordeak prestatua) onartzean; gaitzesteko eskubidea ere badu.

Parlamentuak, teorian, Elkarteko kontrol demokratikoaren kontrola ere egotzirik du, Batzordea zentsurabotoaren bidez eraits baitezake.

Europako Elkar-teetako

Batzordea

Batzorde hau, Europako Elkar-tearen erakunde-sistemako organo nagusienetariko bat da. Hiru Elkar-teen (IAEE/CECA, EEE/CEE eta Euratom) exekutiboak bat-egiten dituen Tratatuaren sinaduratik aurrera, 1967ko uztailaren 21ean indarrean hasi zene-tik alegia, Batzordea bilakatu da Elkar-te haien guztien organo batera-tua.

Elkarteko Estatu ezberdinetatik etorritako kideek osaturik dago; kide horiek Estatuak izendatzen dituzte adostasunez, baina, hala ere teorian, hauetatik lokabe dira. Europako Parlamentuaren inbestidura-bozketa-ren menpe dago.

Batzordeari esleitzen zaizkion funtzioak, hurrengo hauek dira: Tratatuaren zainzailea izatea, Minis-troen Kontseiluak eta Parla-mentuak onarturiko **araudi eta zuzenta-rauen** aplikazioaz arduratzea eta Justizi Auzitegiara jotzea Elkarteko Zuzenbidea aplikaraz dezan.

Ekimen legegilearen arloan eskusibotasuna du eta edozein une-tan esku har dezake Ministroen Kontseilukideen arteko adostasuna errazteko. Funtzio exekutiboak ere baditu, Ministroen Kontseiluak hartu-riko **erabakiak**, Nekazaritzaren Politika Bateratuaren (PAC/ENP) ere-mukoa adibidez, praktikan jartzeko ardura duelako.

Europako Elkar-teetako Justizi Auzitegia

Luxemburgen kokaturik, hama-bost magistratuk osaturik dago; hauei bederatzi abokatu nagusik laguntzen diete beren zereginetan. Estatu kideek izendatzen dituzte guztiak sei urteko epealdirako. Auzitegi honen eginkizu-nak, funtsean hauek dira:

a) Europako Erakundearen eta Gobernuen ekintzak Tratatuarekin bateragarri direnentz egiaztatzea. Auzitegi honetara Elkarteko erakun-

deek, Estatuak zein pertsonak jo dezakete, baldin uste badute bere interesak kaltetuak izan direla.

b) Estatu kideetariko bateko auzitegi batek eskatuz gero, Elkarteko Zuzenbidearen xedapenen interpretazioari edo bazlozkatasunari buruz erabakitzea.

Bere epai eta interpretazioen bidez Justizi Auzitegiak, guztiei ezartzen zaien Europako Elkarteko Zuzenbidea sortzen laguntzen du, EEJA/TJCEren epaiketetako agintaritza nagusitzen delako auzitegi nazional ezberdinen gainetik.

1987tik, EEJA/TJCEk Lehen Auzialdiko Auzitegi baten laguntza du, bere ardura, erakundeen izaera administratiboko auzibideak eta eskuduntzei buruzko arauen aplikaziotik Europako Elkartearen eta enpresen artean sortzen diren auziak konpontzea delarik.

Kontu Auzitegia

Kontu Auzitegi hau, 1975eko uztailaren 12ko Tratatuak sortu zuen. Hamabost kidek osaturik dago eta EEJA/TJCEren kasuan bezala Estatu kideek ahobatekotasunez izendatzen dituzte guztiak sei urteko epealdirako.



Justizi Auzitegia. Hitzarmenaren ezarpena bermatzeko eginkizuna du.

KA/TCK Elkartearen sarrera eta gastuen legaltasuna eta erregularutasuna egiaztatzen ditu eta, halaber, euren finantza-kudeaketa zuzena denentz ere. Maastrich-eko Tratatuak KA/TCKren garrantzia gehitu egin du Elkarteko bosgarren erakunde bihurtuz.

2. Europar integrazioa.

Ekonomia eta Gizarte

Batzordea

Batzorde hau, EEE/CEEkin eta Euratomekin zerikusi duten gaietan Ministroen Kontseiluari eta Batzordeari laguntzen dien kontsulta-erakunde bat da. Erabaki-kopuru handi bat hartu aurretik EGB/CESri kontsulta egiteak aginduzko izaera du.

Politika Bateratuak

Europako Elkartearen politika bateratuak, merkatu batuak eratu zuen ekonomia-gunetik abiatuta taxutu dira. Politika bateratu garrantzitsuenak hurrengo hauek dira:

Nekazaritzaren Politika

Bateratua (PAC/NPB)

Politika honek toki berezi bat betetzen du Elkarteko politikan. Elkarteko arautegiaren zati handi bat nekazaritzaren sektoreari dagokio. EEE/CEE eratzen duen 1957ko Erromako Tratatua sinaduratik aurrikusirik, bere helburuak hiru mailatan bana daitezke: sozialak, ekonomikoak eta politikoak.

Nekazaritzako produktuak Elkarteko mugen barruan libreki zirkulatzea ahalbideratzeko eta pro-

dukzio eta merkaturatze-baldintzak aldatzeko xedeaz eta eraginkortasun eta errentagarritasun gehiago lortu ahal izateko, NBP/PACek tresna-mordobat du: Merkatuko Erakunde Bateratuak (MEB/OCM); nekazaritzako egituren politika; elkarlehiaren defentsarako arauak; Estatu kideetako legeriaren harmonizazioa eta nekazaritzako ikerketaren koordinazioa.

1962an EEE/CEEk **Europako Nekazal Orientabide eta Garantiarako Fonda** (ENOGAF/ FEOGA) sortu zuen, NBP/PAC finantzatzeko asmoz. Fondo honek zenbait aldaketa izan ditu urteetan zehar.

Esan beharra dago NBP/PAC praktikan jartzeak herri garatuenetako nekazaritza-jabe nagusiei, mekanizazio-maila handi bat ukanik, prezio benetan konkurrentzialetan hazten dituztenei alegia, egin diela mesederik gehien.

Gaurregun, ustiategiatariko %20ak, hau da: nekazaritzako elikagaien sektorean ezarri diren nazioz gaindiko enpresen mende neurri handi batean daudenek hain zuzen, eramaten dituzte Elkarteko laguntzen %80a baino gehiago.

Elkarteko Industri Politika (EIP/PIC)

Politika honen sorrera, Batzordeak Kontseiluari 1970ean igorritako Colonna Memorandumetik dator. Proiektu hark porrot egin zuen, Estatu kideen artean adostasunik ez zelako egon.

Geroago, industri oinarri bateratu bat lortzera bideraturiko jokabide bateratsuko programa bat garatzeko konpromezua erdietsi zen 1972ko Pariseko Goi-gailurreko Batzarrean. 1973ko abenduaren 17an Kontseiluak industri eta teknologi arloetan Lehenengo Egintza Programa martxan jartzen zuen Ebazpena onartu zuen, hurrengo alderdietan oinarritua:

- Elkartrukeei jarritako eragozpen teknikoak ezabatzea.
 - Obra eta zerbitzuen kontratazio-merkatu publikoetarako sarrera gero eta gehiago irekitzea.
 - Europa mailan konkurrentzial ziren enpresei laguntza ematea.
 - Teknologia aurreratudun industriak sustatzea.
 - Estatu ezberdinetan kokaturiko Elkarteko enpresen artean nazioz gaindiko lankidetza bultzatzeko arduraz izango duen zerbitzua sortzea.
- Krisi ekonomikoak iraun egiten

zuenek, industri politikaren arloan izaera orokorreaz eramandako ekin-tza bateratu hauek, neurri-mordo batsektoreka hartzea ekarri dute.

Honela, siderurgia, untzigintza, ehungintza, e.a. bezalako sektore hain garrantzitsuen berregituraketak, industri tradizio handiko eskualdeak praktikan eraistera eroan dituztenak, gauzatu dira, horiek ekarri dituzten langabezia eta gizarte-bazterketaren ondorio guztiekin.

Kanpo eta Segurtasun Politika Bateratua (KSPB/PESC).

Hauxe da politika bateratuen artean modernoena, Maastrich-eko Tratatuak sortu zuelako. Honek ezartzen duen arabera, batasun politikoa kanpo eta segurtasun politika bateratu baten, hasiera batean eta aldi batean gobernuarteko izaera izango duenaren, aplikazioan oinarrituko da.

Kanpo politikako orientazio nagusiak adostasunez ezartzen dituen agintaritzaren gorenak, Europako Kontseiluak dirau izaten, baina kontuan izanik Europar Batasuneko (EB/UE) Estatu kideak konprometatuko dituen **egintza bateratuen printzipioa.**

2. Europar integrazioa.

Egintza bateratu hauek gehiengo kualifikatuz harturiko hitzarmenen bidez aplikatu ahal izango dira. EBT/TUEk aurrikus-ten du PESC/KSPBk, epe luzera, Europaren defentsa bateratura jo dezakeela eta horrek esan nahiko luke maila estrategiko eta militarra hartzen dituen batasun osoa lortu dela.

Elkarteko Estatuak, ETB/TUE sinatu zutenean, MEU/UEOra zuzendu ziren erakunde militar hau (IATE/OTANi lotua) Europar Batasunaren beso armatuan era zedin. Zentzu honetan, ez dago argi erakunde honen etorkizuna zein izango den, bera eratu zuen Tratatu 1998ra arte baino ez dagoelako indarrean.

Bestalde, EB/UEko Estatu kide batzuek MEU/UEO indartzera zuzenduriko hitzarmen militar mordo bat sinatu dute beraien artean; hala nola, Eurocorpa, 50.000 soldatu inguru dituen eta izaera iraunkorra duen frantziar/alemaniar brigada.

Europako Eragiketa Indar Azkarrak (EUROFOR), kuartel nagusia Florentzia hirian duena eta Espainia, Frantzia, Portugal eta Italiako armadetako elite-unitateek eratua. Guztiak ematen du aditzera Magreben agian

eskuharmen bat etorkizun gehiago ala gutxiago hurbilean egitera destinatuturik dagoela.

Europako Itsas Indarra (Euro-marforce), lau herri berdinean horietako itsas-armaden jokabidea koordinatuzera destinatuturiko erakundea, egitura iraunkorrik gabea.

Gainera, aipatu behar dira Frantziak eta Britainia Handiak eraturiko Europa Aire Taldea, idar urlehortar anglo-holandarra eta Torrejonen kokaturiko detektapen espazial eta sateliteen informazioaren analisirako Zentroa.

Beste Politika bateratu batzuk.

Lan honen espazio-mugapenagatik izendatu baino ez baditugu egingo ere, Elkarteko beste politika batzuk ere aipatu beharko lirateke, hala nola: Garraio Politika Bateratua, elkarlehiari buruzko Elkarteko politika, Elkarteko gizarte-politika, kontsumitzaileen defentsarako politika, Elkarteko herrialde-politika eta ingurugiro-politika.

Alemaniarren papera

Europaren eraikutza prozesuan

Alemania birbateratua, laurogei milioi biztanlerekin eta Europako BEG handienarekin, paper erabakiorra jokatzen ari da EB/UEn. Hau hobeto ulertzeko alderdi-mordo bat ukan behar da kontuan:



1.- Alemania herri "normalizatu" bat bihurtu da, hala politika nola erakunde-ikuspuntutik. Hemendik aurrera, bere nazio-interesak argi eta garbi, kanpo-hipotekarik gabe, planteatu ditzake berriro.

2.- Bere aurrean, eragipen-eremu zabal bat irekirik dago Europako Mendebaldean, duela mendeetatik "hedapen-eremu naturalizat" hartu izan duena gainera. Eremu propio hori hortxe dagoela egiaztatzeak, EB/UEko gainerako Estatuak Alemania Elkartearen bilbaturan finka dadin saiatzea ekarri du.

3.- "Gerra hotza" amaitu eta gero sortu zen nazioarteko egoeran,

2. Europar integrazioa.

Europako erakunde eta organismo batzuk indargabe agertu ziren, hala nola Europako Kon-tseilua eta Europako Segur-tasun eta Lankidetzaren Batzarra (ESLB/CSCE). Beste batzuk, aldiz, paper garrantzitsua jokatzen ari dira kontinentearen itxuraketa berrian, adibidez EB/UE, MEB /UEO eta IATE/OTAN.

4.- Europaren integrazio-prozesuan ekonomia-arazoei ukan duten nagusigoak Alemania bihurtu du bertako protagonista ukaezin, batez ere Maastrich-eko Tratatuak aurrera.

Honek, Estatu ezberdinek jokatutako paperaren birbanaketa eragin du, halako erakoa non Frantzia "Europar proiektuan" pisua galduz joan den eta horrekin batera ardatz frantziar-alemaniarra bigarren maila batera pasatu den.

Alemania eta geopolitika

Europako erdialdean kokaturik eta bi blokeen arteko muga-

lerroan lekukuriko nazio zatitua baten parte zenez, AEFri asko interesatzen zitzaion Europako Ekialdeko herri auzakide eta SESBrekiko harremanak normalizatzea, Berlineko segurtasuna bermatzea eta AEDrekin lankidetzaren abartu bat gauzatzeari hasiera ematea, horregatik ukorik egin gabe, jakina, etorkizuneko birbateratzeari. Hauxe zen Ostpolitikaren esanahia. Jakina, horretarako, aliatuen, eta batez ere iparramerikarren, interesekin kontraesanetan zegoen ezer ere ezin zuen egiten.

Politika honen emaitza, 1970 eta 1973 bitartean sinatu zituen hitzarmen-mordo bat izan zen, hitzarmen horien bidez SESB eta Ekialdeko herriekiko harremanak zailtzen zizkioten arazo guztiak konpontzen saiatu zelarik:

- Moskuko Tratatuak, AEFren eta SESBren artean 1970eko abuztuaren 12an.

- Varsoviako Tratatuak, AEFren eta Poloniaren artean 1970eko abenduaren 7an.

- AEFren eta AEDren arteko Harremanen Oinarriak buruzko Tra-

tatua, 1972ko abenduaren 21an.

• Pragako Tratatua, AEFren eta Txekoslovakiako Errepublikak Sozialistaren artean, 1973ko abenduaren 11an.

1971ko irailaren 3an Berlini buruzko lau parteko hitzarmena sinatu zen. AEFk hemen parterik hartu ez bazuen ere, bere Ostpolitikeko pieza nagusietariko bat izan zen.

Hitzarmen hauek guztiak bi ardatzen inguruan ari ziren birak: indarraren erabilerari uko egiteko borondatea eta lankidetzaz garatzeko komenigarritasuna.

E.E.E/C.E.E-ren handiepenaren aurrean alemaniak izan duen jarrera

Hirurogeiko hamarkadatik aurrera, eta garbiago laurogeiko urteetatik aurrera, AEFk, ostpolitikaren bidez, gero eta argiago defendatzen ditu bere nazio-interes propioak.

Europako Elkartearen markoan, AEFk autonomia hori ere adierazi zuen. Eta bi maila ezberdinetan. Alde batetik, bere baitan itxiriko Europaren ideiariko uko eginik; eta bestetik, bere interes ekonomiko eta politiko bereziak defendatuz.

Europa-ikuskerari dagokionez, AEF beti agertu da gogor truke librearen alde. Ezin zitekeen beste era batera izan, bere BEGaren %25a esportazioen mende dagoenean.

Jarrera honekin kontsekuente izanik, babeskuntza-saio guztien kontra agertu da eta honek eraman du batzuetan Frantziaren aurka eta beste batzuetan Britainia Handia eta Belgikaren aurka (Altzairuaren gaia) agertzera.

EE/CE Europako erdialde eta ekialdera hedatzearen aldekoa ere bada eta lehentasun gehiago ematen dio arazo horri, Europaren integrazioaren prozesuan sakontzeari baino.

1990ko otsailaren eta uztaila-

2. Europar integrazioa.

ren artean SESBk Alemaniaren birbateratzearen arazoari buruzko bere jarrera aldatu zuen eta baldintza jakin batzuekin onartu:

1.- Prozesu kontrolatu baten bidez burutzea, epe ertain eta luzeko plan bati jarrai.

2.- Alemania birbateratua IATE/OTANen ez integratzea, neutraltasun-estatutua onartu baino.

3.- Ekonomiaren bidez ordaintzea AEDn zeuden sovietar tropen aberriratzea.

Gertaeren geroko garapenak baldintza hauek betetzea eragotzi zuen.

ESLB/CSCEko Estatu eta Gobernu Buruek 1991ko azaroan Parisen egin zuten Gogailurreko Batzarra izan zen Alemaniaren birbateratzearen eta sovietar blokearen hondamendiaren nazioarteko behin betiko aintzatespena.



Alemaniaren birbateratzea eta E.E.E./C.E.E.

Europako Elkarateak aurretik leundu zuen bidea AED bertan azkar sartzeko. Helburu horrekin 1990eko abuztuaren 21ean Europako Batzordeak, Jacques Delors, bere lehendakariak proposatuta, laburbildurik hurrengo honetan zeutzan neurri batzuk onartu zituen:

a) Alemaniaren birbateratzearen kostuaren jasanarazpena Elkarteko aurrekontuan halako eran mugatzea non lehengo AEDko länderei buruzko egitura-politiken finantzaketak jadanik onarturiko fondoak gehitzerik ekarriko ez zuten.

b) Birbateratzeak ez zuen eskatuko Tratatuak aldatzerik. Izan ere, AED funtzionatzen ari zen EEE/CEEko 13. Estatua balitz legez, alemaniarren arteko merkataritza barne-merkataritzatzat hartzen zelako.

c) Elkarteko araudiak eta Zuzenbidea AEDn berehala aplikatzekoak zirelako.

Nahiz eta birbateratzearen ostean Alemania berriak esaten zuen berak jarraitzen zuela mantentzen Europaren eraikuntzarekiko bere konpromezua, Frantziak aurrera atera zuen aipatu konpromezu hori ageriko egiteko hitzarmena. Hauxe izan zen EBT/TUE sinatzeko sakoneko arrazoia.

Maastrich-en ospatu zen Europako Elkarteko Estatu eta Gobernu Buruen Goi-gailurreko Batzarra Europaren integrazio-prozesuarekin jarraitzeko taldekonpromezu bat izan zen eta bertako hitzarmen esanguratsuena EMB/UEMera iristea izan zen.

Alemaniaren birbateratzearen eragina biguntzeko EE/CEk hartu zituen neurriak gorabehera, hau ekonomian nabariro sentitu zen, eta ez bakarrik Europakoan, mundukoan bertan ere baina.

2. Europar integrazioa.

Bateratasunaren kostuak urtean ehun eta hogeita hamar mila milioi eta ehun eta hirurogeita hamar milioi markoren artean dabilen kopurura igon dira. Honi gehitu beharko litzaizkioke krisi ekonomikoari propioki dagozkion ondorioak. Faktore batak eta besteak modu konbinatuan jokatzen dutenez, eragin izugarria ukan dute Alemaniako ekonomian, nagusiki bere finantza-egonkortasunari eta industria-dinamismoari ukitu baitiete.

Baina Alemaniaren birbateratzeak EE/CEn beste ondorio politiko batzuk ere izan ditu: integrazio-prozesuan sakontzea nahi zuten joerak indarra galdu dute eta EB/UE Europako iparralde eta erdi-ekialderantza hedatzerantz bideratzeko joera zutenak, aldiz, indartu egin dira. Honela, EE/CE hamabi kide-tik hamabost izatera pasatu da eta 2.000. urterako hemezitza hel daiteke, jadanik ikusten den PECOen integrazioarekin.

Beste alde batetik, frantziar-alemaniar ardatza, hasiera batean, autonomia politikoa berreskuratzeko, AEFren kanpo-politikaren-tzat hain beharrezko zena, birbateratzearekin ez da ho-rren garrantzitsua eta beraz Frantzia bere protagonismoa eta pisua galduz joan da Europaren eraikuntza-prozesuan. Hortik, egiten ari den ahalegina guztiei gogorarazteko bera dela oraindik EB/UEko potentzia nuklear bakarra (arloan honetan Britainia Handia beti egon da Estatu Batuen mende). Honexek argitzen du Frantziak zergatik egiten dituen proba nuklearrak Mururoako atoloian, mundu osoak proba horien kontra erakutsi duen kontrakotasuna gorabehera.

Europar Batasuna

gaurregungo

nazioarteko testuinguruan

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran hasi zen krisi ekonomikoaren garapenak ondorio nabarmenak ukan ditu arlo guztietan: ekonomia, politika, gizarte, ekologia, kultura eta ideologian.

Marko honetan gauzatu da ekonomiaren **orokortzearen** fenomeno eta horrek, planetako herrialde ezberdinetan ematen ari diren integrazio-prozesuak (EB/UE, NAFTA, MARCOSUR, ...) bizkortzen lagundu du. Aldi berean **iraultza zientifiko-tekniko** burtzoragarria garatzen ari da, produkzio-prozesuen automatizazioan, informatikan eta telekomunikazioetan oinarrituta. Honek guztiak metaketa kapitalistaren eredua aldatu du eta lanaren nazioarteko banaketa berri bat ezarri.

Beste alde batetik, Ekialdeko blokearen hondamendiaren eta "gerra hotzaren" amaieraren ostean, Estatu Batuak munduko superpotentzia bakar bihurtu dira (hegemonikoa arlo militarrean, baina ekonomian gainbehera datorrena) eta "nazioarteko ordena berria" ezarri nahiean ari dira. Hala eta guztiz ere, ezin da esan mundu polobakarrean gaudenik.

Une hauetan aurrez aurre dauden hiru poloren itxuraketa ari gara ikusten (Estatu Batuak, EB/UE eta Japonia), nahiz eta aur-

2. Europar integrazioa.

kaketa horrek beste mundu-gerra batera ez gaituen, oraindik bederen, eramango.

Bloke hauetariko bakoitza bere eragipen-alor propioak garatzen ari da, baina, era berean, besteenetan sartzen ere saiatzen da. Estatu Batuek **TALC** edo **NAFTA** sinatu dute Kanada eta Mexikorekin, **Ameriketarako Ekimenaren** bidez Hego Amerika osoa hartzen duen integrazio-proiektu zabalago baten gunea den hori.

EB/UEk, birbateratzetik aurrera indartsuagoa dagoen Alemania buru duela, Europako erdialde eta Ekialderantza, (PECO) eta baita Txipre eta Malta, Mediterranioko Estatu txiki-tara ere, hedatzea asmatzen ari da.

Japonia (estrategikoki potentziarik ahulena, lehengai asko, batez ere petrolio eta metalak, falta zaizkiolako, bere aldetik, bere eragipen-alorra **Itsaso Bareko zazpi dragoien** gan hedatzen ari da.

Estatu Batuek, IATE/OTANen bidez, oraindik ere horko partaide izaten jarraitzen baitu, sudurra sartzen dute Europako gatazketan, hala nola Balkanetan, eta EB/UEk gatazka horiek konpontzeko duen eragingarritasunik eza agerian jartzen saiatzen da.

Era berean, Zaireko ekialdeko eremuan dagoen aberastasunak (petrolio, diamanteak, kobalto) erakarrira, aurkaketa tribalak kilitkatzen ere ari dira Afrikako laku handietako herrialdeetan tutsiei laguntza emanik Frantziaren laguntza hartzen duten hutuen eta Zaireko gobernuaren kontra, Europako multinazionalak atera eta iparramerikarrak sarrarazteko asmoz.

Frantziaren laguntza hartzen duen Liamin Zeruelen gobernuaren kontra ari den Algeriako fundamentalismoaren atzean ere badaudela ematen du. Kontuan hartzen badugu hau herri guztiz aberatsa dela (munduan zazpigarrena da gasa ekoizten eta egunean 333.000 petrolio-upela esportatzen ditu) eta bere inpor-



tazioen %25a Frantziatik eta beste %26 bat Europako beste herri batzuetatik, eta horien artean Espainiatik, doakiola, ederki ulertuko dugu EB/UE hortik ateratzeko Estatu Batuek duten interesa.

Baina Hego Amerika bera ere ez da Estatu Batuen erabateko feudoa. Japonia asko sartu da Brasilen eta Perun eta EB/UEk politika eta ekonomia-harremanak Azpikontinentearekin erakundetzen saiatzeko (Goi-gailu-

2. Europar integrazioa.

rreko Batzar Iberoamerikarrak) Espainiak eta Portugalek dituzten lokarri historiko eta kulturalak aprobetxatzen ditu, bertan sar-tzeko asmoz.

Inperialismoarteko aurka-keten lauki honetan, Europak paper aurrerazale bat joka lezake, baldin nazioz gaindi-ko kapitalaren zerbitzuan dagoen integrazio-prozesua-ren oraingo orientazioarekin apurtuko balu. Eta hau ahal-garri da, Europa aldaketa sozial eta politikara emanago dagoen eremu bat delako.

Kontuan ukan behar dugu, baina eurozentrismoan erori gabe jakina, gure kontinentea zibilizazioen bidegurutzea eta kultura-arragoa izan dela beti. Hementxe gertatu direla Erre-nazimentua eta Erreforma beza-lako fenomeno sozio-kulturalak. Europan izan dela merkataritza-kapitalismoa eta industria-manu-faktura eta bere adierazpen poli-tikoa diren Estatu Modernoak sortu diren eremua.

Europan gertatu ziren XVII eta XVIII. mendeetan lehenengo iraultza burgesak eta iraultza industrialak, XIX. mendeko iraultza liberalak eta Historiako lehenen-go iraultza sozialista, 1917ko urri-ko Errusiar Iraultza.

Euskal Herria

Europar integrazioaren aurrean

Nazio-erakuntza eta gizarte-eraldaketari buruzko proiektuaren ikuspuntutik, Euskal Herriari interesatzen zaio Europako integrazio-prozesuan parte hartzea.



2. Europar integrazioa.


Baina, horrekin batera, aintzindari izan beharra dago Europako proiektuaren gaurko orientazioa, Maastrich-eko Tratatua sinatu zenetik batez ere kapital nagusiaren interesen zerbitzuan dagoena, bestelakotuko duen itzuli bat, hau da: Europa osatzen duten herrien premiei, eta baita klase eta gizarte-maila behartsuenenei ere, erantzungo dien **EUROPA BERRI** baten erakuntza ahalbideratuko duen nora-bide-aldaketa bat ezartzeko borrokan.

EUROPA BERRI bat, Hirugarren Munduko herriak eskatzen ari diren merkataritza egoki, bidezko eta zuzenean eta solidaritatean oinarritua, Estatu Batuak gaur diren **nazioarteko**

armamutil edo jendarmari aurre egiteko marko egokia izango dena eta **benetako nazioarteko ekonomia-ordena berri baten sorrera bultzatzeko** balioko duena.

EUROPA BERRI bat, bidezkotasunez irrikatzen duten nazioek subiranotasuna eskuratzea ahalbideratzeko gai dena eta, gehiago oraindik, baldintza egokiak ematen diren nazio haietan, gizarte eta ekonomia-egituren eraldaketan aurrera egiten ere laguntzen duena.

Eta amaitzeko oraintxe dugu inoiz baino beharrezkoago lurralde hau osatzen duten herri ezberdinetan oinarriturik artikulatuko den **EUROPA BERRIA**, Europa batu, aurrerazale eta demokratikoa, libre eta solidarioa.



LABURDUREN ESANAHIA:

ETLE. Europako Truke-Librearen Elkartea (E.F.T.A. bezala ere ezagutzen da) (AELC)

EAB. Europako Agiri Bakarra (AUE)

ELEK. Elkarren Laguntza Ekonomikorako Kontseilua (CAEM) (CAME)

EIAE. Europako Ikatz-Altzairuen Elkartea (CECA)

DEE. Defentsarako Europar Elkartea (CED)

EEE. Europako Ekonomi Elkartea (CEE)

EAEE. Energia Atomikoaren Europar Elkartea (CEEA)

EIE. Estatu Independenteen Elkartea (CEI)

BES. Batzorde Ekonomiko eta Soziala (CES)

GAB. Gobernuarteko Batzarra (CIG)

OIB. Ordezkeri Iraunkorren Batzordea (COREPER)

CSCE. Europako Segurtasun eta Lankidetzaren Konferentzia (ESLK)

EAMA. Afrikako Estatu eta Malgacheren Elkartea

EEE. Europako Espazio Ekonomikoa

ERT. European Round Table of Industrialists (Europako Industriariaren Mahai Biribila)

EUROFOR. Europako Indar Eragile

Azkarra

EUROMARFORCE. Europako Itsas Indarra

FEOGA. Europako Nekazal Orientabide eta Garantiarako Fondoak (ENOGAF)

GATT. Arantzel eta Merkataritzari buruzko Itun Orokorra (AMIO)

EMB. Europako Merkatu Batua (MEC)

MB. Merkatu Bakarra (MU)

OECE. Kooperazio Ekonomikorako Europako Erakundea (KEEE)

ONU/UNO. Nazio Batuen Erakundea (NBE)

OTAN/NATO. Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundea (IATE)

PAC. Elkartearen Nekazaritza Politika (ENP)

KSPB. Kanpo eta Segurtasun Politika Bateratua (PESC)

EIP. Elkarteko Industri Politika (PIC)

KA. Kontu Auzitegia (TC)

EEJA. Europako Elkarteen Justizi Auzitegia (TJCE)

EBI. Europar Batasunaren Trataturia (TUE)

EB. Europar Batasuna (UE)

EMB. Ekonomi eta Moneta Batasuna (UEM)

MEB. Mendebaldeko Europaren Batasuna (UEO)

